

Ebazpena: R 6/2022

Espedientea: 6/2018

Gasteizen, 2022ko otsailaren 22an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak eta Sofía Arana Landin batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatutakoak, honako hau erabaki du:

ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean BFA) Zerga Administrazioako Estatu Agentziarekiko (aurrerantzean, ZAEA) aurkeztutako gatazkari buruzkoa, NSL zergapekoari dagokionez 2013. urtetik 2015. urtera bitarteko (biak barne) PFEZaren konturako atxikipenak ordainarazteko eskumena zehazteari dagokionez. Gatazka hori 6/2018 espediente zenbakiarekin izapidetzen ari da Arbitraje Batzorde honetan.

I. AURREKARIAK

- 1.- NSL itsas arrantzan aritzen den entitate bat da, eta horretarako 3 itsasontzi ditu (K, M eta A), egoitza-portua Bermeo dutenak.
- 2.- NSLk sartu zizkion BFARI itsasontzi horietako langileei zegozkien lan pertsonalaren etekinen PFEZaren konturako atxikipenak, 2013tik 2015era bitartekoak (biak barne).
- 3.- ZAEAK A09 txostena egin zuen, administrazio ez-eskudunean dirua sartzeari buruzkoa, eta BFARI erreklamatu zion aipatutako atxikipenen sorta.
- 4.- BFAk ukatu egin zuen sorta, eta inhibitzeko eskatu zion ZAEARI, langileen atxikipenak ordainarazteko eskumenari zegozkionez, eta, hark eskumena zuela berretsi zuenez, gatazka planteatu zuen Arbitraje Batzordearen aurrean, 6/2018 espediente-zenbakiarekin izapidetzen ari dena, hain zuzen.

Idazki horretan BFAk planteatzen du eragindako langile guztiek aipatutako itsasontzietan lan egiten dutela, batek izan ezik, JMVR jaunak, deskargen

ikuskatzaile-eginkizunak betetzen dituenak, Bermeoko kotizazio-kontuari atxikita.

5.- Gatazka hori prozedura arruntaren bidez izapidetu da, ZAEari hasierako alegazioen izapidea emanez, eta BFari, ZAEari eta Nri azken alegazioen izapidearekin ikusgai jarritz.

Azken alegazioen idazkian, ZAEak JMVR jaunaren 2015eko atxikpenak soilik erreklamatu ditu.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Bi administrazioek ez dute auzitan jartzen gatazka honetan zehaztu nahi dela nork duen eskumena itsasoan, Bizkaiko egoitza-portuari atxikitako hiru itsasontzietan, lan egiten duten langile batzuei dagozkien lan pertsonalaren etekinen PFEZaren konturako atxikpenak ordainarazteko, baita hainbat portutan zerbitzuak ematen dituen langile baten atxikpenak ordainarazteko ere.

2.- Itsasontzietan zerbitzuak ematen dituzten langileei ordainarazteko eskumena Arbitraje Batzorde honek 2018ko ekainaren 28ko R6/2018 Ebazpenean jada ebatzi zuen, 13/2015 Espedienteari buruzkoan, eta berariaz zuzenbidearen araberakoa zela deklaratu zuen Auzitegi Gorenak, 1.319/2019 zenbakiko epaian, 2019ko urriaren 4koan (Errek. zk.: 411/2018), ezetsi baitzuen ZAEak ebazpen haren aurka jarritako errekurtoa.

Arbitraje Batzordearen ebazpen hark, Auzitegi Gorenak berretsitakoak, Bizkaian egoitza zuen sozietate batek egindako tributu-kontsulta ebatzi zuen; aipatutako sozietateak ordainsariak ordaintzen zizkien beren lana Murtzian egoitza-portua zuen itsasontzi batean egiten zuten langileei. Kontsulta egin zen jakiteko zein Administrazioari (ZAEari edo BFari) ordaindu behar zitzaizkion PFEZen konturako atxikpenak, itsasoko langile horien ordainsariei zegozkienak. Arbitraje Batzordeak ondorioztatu zuen administrazio eskuduna zela itsasontzia atxikita zegoen egoitza-portuari zegokiona eta ondore horietarako itsasontzia lantokizat hartzen zela.

lido beretik, abenduaren 28ko 10/2017 Legeak –lehen aipatutako R6/2018 Ebazpena eragin zuen gatazka jarri ondoren emana– Ekonomia Itunaren 7.Bat.a) artikuluari idazketa berria eman zionez (gaur egun indarrean dagoena), tripulatzailea atxikita dagoen lantokiaren lurreko kokapenean oinarritu zuen, halaber, Ekonomia Itunaren hutsune historikoa betetzeko irizpidea, itsasoko langileen atxikipenak ordainarazteko eskumenari dagokionez; gaur egun, aldaketa horren ondorioz ebatzi da eskumen hori.

3.- Itsasontzi batean zerbitzuak ematen ez dituen langilearen ordainarazpen-eskumena arau orokor bidez arautzen da: arau horrek eskumena esleitzen dio zerbitzuak ematen diren lekuari dagokion Administrazioari.

ZAEAk adierazi zuenez, enpresaren ordezkariaren adierazpenen arabera, deskargen ikuskatzaileak Galiziako bi portutan soilik ematen ditu zerbitzuak. BFAk ez ditu indargabetu adierazpen horiek.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU

1.- BFAri dagokiola Bermeoko portuari atxikitako itsasontzietan zerbitzuak ematen dituzten langileen lan pertsonalaren etekinen PFEZaren konturako atxikipenak ordainarazteko eskumena, 2013 urtetik 2015 urtera bitartekoak; eta ZAEArri dagokiola 2015. urtean Galiziako portuetan zerbitzuak ematen dituen langilearen ordainarazpen-eskumena.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioiko Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta Nri.